

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5853

483/2024 DEKRETUA, abenduaren 17koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia izendatzeko dena.

Azaroaren 13ko 160/2018 Dekretuaren bidez, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren estatutuak onartzen dira. Dekretu horren eranskinaren 11.3 artikulua hau xedatzen du: SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Zuzendaritza Nagusiaren titularraren izendapena Eusko Jaurlaritzak egingo du, dekretu bidez, industria-politikaren eta enpresa-lehiakortasunaren esparruan eskumena duen sailburuaren proposamenez.

Ondorioz, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Jon Ansoleaga Ugarte jauna SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusi izendatzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2024ko abenduaren 26tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 17an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.